



Andoaingo Udala



Andoaingo Udalaren 2024ko Aurrekontu Parte-Hartzaileen prozesuaren baldintzak

0.SARRERA

Andoaingo Udalaren aurrekontuetan berariaz hórrela zehaztuta etorriko den kontu-sail bat herritarren partaidetzaren bidez esleitzeko prozedura zehaztea da agiri honen helburua. Bertan zehaztuko da nork eta nola aurkeztu ditzakeen proiektuak, zein diren proiektuen balioespenerako irizpide teknikoak, herritarrei bozkatzeko moduak eta abar.

1.PARTE-HARTZEA

Aurrekontu Parte-Hartzaileen prozesu honetan Andoainen erroldatuta dagoen 16 urte baino gehiago dituen edozein pertsonak parte hartu ahal izango du.

2.BATZORDEA

Proposamenak teknikoki balioetsiko dituen Partaidetza Prozesuaren Jarraipenerako Udal Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Hainbat arlo eta sailtako udal-teknikariak, jasotako proposamenen izaeraren arabera.
- Udaletxean ordezkaritza duen talde politiko bakoitzaren ordezkari bat.
- Udalburua, batzordeburugisa.

3.PROPOSAMENEN EREMUA

Proposamenak Andoaingo udalerrinari eta/edo bertako biztanleei zuzenduko zaizkie. Proposamen-kopuruari dagokionez ez da mugarik egongo herritarrentzat. Proposamenak Udal eremu eta eskumenen barrukoak izango dira. Horien kopurua eta lurralde-eremua definitu beharko da, baina udalarena izango da horren



titulartasuna, edo gutxienez, ez du titulartasun pribaturik edukiko, eta erabilera eta sarbide libre eta publikoa izango du.

4. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Data: irailaren 18tik urriaren 6ra

Proposamenaren aurkezpena memoria baten bitartez egingo da, eta bertan, proposamenaren ezaugarri nagusiak jasoko dira, eta gutxienez:

- Proposamenaren izenburua.
- Proposamenaren aurkezlea eta berarekin harremanetan jartzeko datuak.
- Deskribapena.
- Gutxi gorabeherako aurrekontua.
- Aplikazio-eremua.
- Aukeran egongo diren beste datu batzuk.

Proposamen horiei sarrera eman beharko zaie modu telematikoan www.andoain.eus webgunean, edo honetarako gaitutako partaidetza-puntuetan, fase honetarako adierazitako epea amaitu aurretik.

Gaitutako partaidetza-puntuak:

- Udaletxea (Ataria)
- Urigain
- Allurralde Kiroldegia
- Arrate Frontoia
- Ambrosia Olabide Gizarte-Zerbitzuen Zentroa
- Bastero Kulturgunea
- Liburutegia
- Gazte Lokala
- Ludoteka

5. PROPOSAMENEN ONARPENA

Aurkezten diren proposamen guztiek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Proposamena Andoaingo udalerriri eta/edo bertako biztanleei zuzenduko zaie.
2. Proposamena Udal eremu eta eskumenen barrukoa izango da.



3. Beste erabaki-eremu bati dagozkion proposamenak baztertuko dira (adibidez, Mankomunitatea).
4. 2023.urteko udal-aurrekontuan dagoeneko barne ez egotea.
5. Proposamena 2024ko aurrekontu-ekitaldian betearazteko modukoa izan behar da, eta ezin izango da ondorengo ekitaldiekin lotu.
6. Proposamena zehatza, mugatua eta ekonomikoki ebaluagarria izango da.
7. Aurrekontuetan zehaztutako kontu-sail berezian erabakiko da horren gehieneko zenbatekoa.
8. Proposamenak ingurumen-eragin positiboa edo ez deusa edukiko du.
9. Proposamena ezin daiteke diskriminatzailea izan inorekin genero, arraza, adin edo bestelako arrazoiengatik, ezta udal-politiken (euskara, ingurumena eta abar) aurka joan edo haren kudeaketa baldintzatu ere.
10. Proposamenek ezin izango diete erakunde publiko edo pribatuei dirulaguntzarik esleitu.

6.PROPOSAMENEN BALIOESPEN TEKNIKOA

Data: urriak 9tik 20ra

2.puntu zehaztutako proposamenen balioespen teknikoa Udal Jarraipen Batzordeak egingo du. Balioespen horrek 50 puntu balioko ditu gehienez.

Balioespen teknikoa ondorengo **epigrafeen** arabera egingo da:

1.Puntuazioa gauzatze-ezaugarrien arabera:

Mantentze-lanen kostuaren arabera: 4puntu gehienez.

- % 10etik gorako kostua, urte osoko kostuaren gainean: puntu 1.
- % 10etik beherako kostua, urte osoko kostuaren gainean: 2 puntu.
- % 5etik beherako kostua, urte osoko kostuaren gainean: 3puntu.
- Ez du kosturik: 5puntu.

Baliabide propioak erabiltzearen arabera: 3puntu gehienez.

- Udalerrian dauden baliabideak erabiliz: 3 puntu.
- Udalerrian dauden baliabideak eta kanpoko baliabideak erabiliz: 0 puntu.

Jarraitutasunaren eta etorkizuneko iraupenaren arabera: 4 puntu gehienez.

- Urte 1 eta 5 urte artean: puntu 1.



- 5 urte eta 10 urte artean: 3 puntu.
- 10 urte baino gehiago: 4 puntu.

2. Puntuazioa onuradunen arabera:

Onuradunen ehunekoaren arabera: 8 puntu gehienez.

- Biztanleriaren % 0 eta % 25 artean: 2 puntu.
- Biztanleriaren % 25 eta % 50 artean: 4 puntu.
- Biztanleriaren % 50 eta % 75 artean: 6 puntu.
- Biztanleriaren % 75 eta % 100 artean: 8 puntu.

Premia handiena duten biztanleei dakarkien onuraren arabera: 5 puntu gehienez.

Adintaldeak (haurrak, gazteak, adinekoak), ezinduak (fisikoak, psikikoak edo sensorialak), aukera gutxien duten kolektiboak (langabetuak, immigranteak, gutxiengo kulturalak), eta abar.

- Biztanleria ez-kaltebera: 0 puntu.
- Biztanleria kaltebera: 3 puntu.
- Biztanleria oso kaltebera: 5 puntu.

Udalerrian premia handiena duten eremu eta inguruetan duten onuraren arabera: 5 puntu gehienez.

- Identifikatutako premiarik gabeko eremua: 0 puntu.
- Identifikatutako premiak dituen eremua: 3 puntu.
- Behar handiak dituen eremua: 5 puntu.

Hirugarren Sektorean duen eraginaren arabera: 5 puntu gehienez.

- Eragin negatiboa: 0 puntu.
- Eragin ez deusa: 3 puntu.
- Eragin positiboa: 5 puntu.

3. Balioak sustatzeagatik eta zabaltzeagatik lortutako puntuazioa:

Udalerrian **berdintasuna, erantzukidetasuna, ekitatea eta adiskidetzea** sustatzeko duen gaitasunagatik: 3 puntu, gehienez.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.



Integratzeko, partehartzeko eta gizarteratzeko gaitasunagatik: 3 puntu, gehienez.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

Heziketa eta hezkuntza-gaitasunatik: 3 puntu, gehienez.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu

Hizkuntza normalizatzeko eta euskara erabiltzeko gaitasunagatik: 3 puntu gehienez.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 3 puntu.

Ingurumen-jasangarritasuneko eta ingurumen-inpaktuaren murrizketako irizpideak sartzeagatik: 4 puntu gehienez.

- Ingurumen-eragin negatiboa: 0 puntu
- Ingurumen-eragin ez deusa: 2 puntu
- Ingurumen-eragin positiboa: 4 puntu

Proposamen bat hautatua izateko eta hurrengo fasera pasatzeko, herri-partaidetzara, gutxienez 25 puntu lortu beharko ditu. 25 puntu baino gehiagoko 10 proiektu baino gehiago badaude, puntuazio handieneko 10 proiektuak aukeratuko dira hurrengo fasera igarotzeko. Halaber, 25 puntu lortzen dituzten proposamenen kostu osoa 250.000 eurotik beherakoa bada, guztiak exekutatu dira. Horrela, hurrengo fasea ez litzateke beharrezkoa izango.

7. HERRI-PARTAIDETZA

Data: azaroak 15etik 30era

Andoaino Udalak, herri-partaidetza gauzatzeari begira, partaidetza-orri batzuk jarriko ditu herritarren esku. Online bertsioko inprimakia www.andoain.eus web-orrian egongo da eskuragarri. Paperezko bertsioa, berriz, 4. Puntuan esleitutako udal-eraikinetan egongo da eskuragarri. Inprimakiak bete eta herritarren partaidetzarako postontzietan utzi beharko dira.

16 urte baino gehiago dituen eta herrian erroldatua dagoen herritar bakoitzeko boto bat bakarrik onartuko da, eta horri begira, bere izen-abizenak eta NAN zenbakia idatzi beharko ditu nahitaez partaidetza-orrian. NAN berarekin 2 boto edo



gehiago eman direla hautematen bada, hauek baliogabetuko dira eta Udaletxea persona horrekin harremanetan jarriko da, eman dituen botoetatik baliozkoa zein den baieztatzeko.

Boto emaileak aukeratutako proiektuei 3 tik 1era bitarteko puntuazioa emanez egingo da bozketa; lehenetsun handieneko proiektuari 3 puntu emango zaizkio eta puntu 1 lehenetsun gutxienekoari. Nahitaezkoa izango da persona bakoitzak 3 puntuazioak esleitzea. Puntuazioren bat falta bada, boto hori baliogabetuko da. Bozketan partehartzen duten guztienartetik % 5etik beherako pertsona-ehunekoak lortu duten proposamenak ezingo dira hautapen-prozesuan sartu.

Herritarren artean babes handiena jasotzen duen proposamenari 50 puntu emango zaizkio, eta gainerakoei boto-ehunekoaren arabera puntuazioa emango zaie.

Proposamen bat hautatua izateko eta aurrekontuetan sartzeko, gutxienez 65 puntu lortu beharko ditu, hau da, balorazio teknikoan lortutako puntuazioa eta herritarren bozketan lortutako puntuazioa batuta. Baldin eta 65 puntuak gainditzen dituzten proposamenen aurrekontuen baturaren zenbatekoa 250.000eurotik beherakoa bada, proposamen horiek guztiak onetsizat emango dira, udaleko aurrekontuen proposamenean gehitu eta amaitutzat emango da parte-hartzezko aurrekontuen prozesua.

8.ESLEIPENA

Partaidetza Prozesuaren Jarraipenerako Udal Batzordeak puntuazio partzialen (teknikoa eta bozketa) eta puntuazio osoen zerrendak prestatu eta argitaratuko ditu, puntuazio handiena lortu duten proiektuetatik puntuazio txikienera ordenatuz.

9. AURREKONTU-IZAPIDEAK

Partaidetza Prozesuaren Jarraipenerako Udal Batzordeak udal gobernuari eskatuko dio ekin diezaiela proiektuak gauzatzeko administrazio-izapideei, puntuazio-ordenaren arabera, aurrekontuetan zehaztutako kontu-sail berezia ahitu arte.

10. EPILOGOA: PROZESUAREN HELBURUAK ETA BALORAZIOA.

Aurrekontu parte-hartzailearen ereduak **funtsezko helburu** hauek ditu:



- a. Andoaingo Udalaren aurrekontuko zenbait alderdiri lehentasuna ematen laguntzea, herritarren parte-hartze maila handitzeko eta hobetzeko.
- b. Aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren sustapena eta hedapena sustatzea, unibertsaltasun- eta auto arautze-printzipioetan oinarrituta, ekintza positiboan, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, herritarrek prozesu horietan parte har dezaten sustatzeko eta errazteko.
- c. Emakumeek eta gizonek Andoaingo udalerriko gai publikoetan berdintasun-baldintzetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea, Administrazioaren funtzionamenduan parte-hartzea ezarriz, bere kudeaketa-maila guztietan.
- d. Herritarren eskubide demokratikoak garatzea.
- e. Herritarren parte hartzearen kultura sendotzea sustatzea, arlo publikoarekiko interesa duen herritartasun aktiboa lortzeko.
- f. Gobernu-ekintzan gardentasuna areagotzea, eta udalerrian gobernu-ekintzaren eta gizartearen arteko lotura artikulatzea.
- g. Botere publikoak gizarte-premia eta-dinamiketara irekitzea bultzatzea.
- h. Elkartasun-eta gizarteratze-maila handiagoak bermatzea, genero-berdintasuna lortzen eta baliabide ekonomiko, kultural eta/edo social gutxiago izateagatik beren interesak defendatzeko desabantaila-egoeran dauden pertsonen interesak defendatzen laguntzen.
- i. Kultura eta partehartzeko ohiturak zabaltzea.
- j. Udalerraren etorkizunerako eredu parte-hartzailea, irekia, errepikakorra eta egonkorra ezartzen saiatzea.